



Maiatzak 1

Eskk langabeziaren aurka eta negoziatzen ari diren lan erreformaren kontra altxatu nahi du bere ahotsa Maiatzak 1 honetan. Langabeziak eta erreformak dakartzaten krisiaren kostuei gogor eginaz eredu ekonomiko eta sozialaren aldaketa erradikalerako baldintza hobetoak izango ditugula plazaratu egin nahi dugu; aldaketa honek, gizakiari gune nagusia eman behar dio eta bertatik etekin kapitalista kendu.

Maiatzak 1 honetan, borroka dezagun langabeziaren aurka eta negoziatzen ari diren lan erreformaren kontra

Jasaten ari garen langabeziatzarrak (lau milioitik gora Estatu espainolean, hots, biztanleria aktiboaren %19a, eta 180.000tik gora Euskal Herrian, biztanleria aktiboaren %13tik gora) argi eta garbi adierazten du langileok gaitzaren krisiaren alderdirik handiena ordaintzen ari garela.

Langabeziak **krisiaren aurpegiak** agerian uzten ditu. Gaizkien pairatzen ari diren kolektiboak azalarazten du:

- **Immigranteak**, %30eko langabeziarekin Euskadin, zeinak enplegurik gabe kolokan dute euren erregularizazioa gure herrian.
- **Gaztedia**, zeinaren langabezia maila batz bestekoa bikoizten du eta kasu askotan, azken urtetan gazte askok ekindako bizimodu independenterako itzaropenak suntsitzen ari da.
- **Kide guztiak langabezian dituzten familiak** (langabetu guztien ia laurdena), zeinentzat egunerokoa kalbario hutsa bihurtu den.
- **Emakumeak**, zeinak langabeziaren kaltetun bezala agertzen ez badira ere, krisiaren zamari eutsi egin behar diote lan merkatuan duten mendeko zeregin prekarioarengatik eta krisiaz jota diren familietan jasan behar dutenarengatik.

Langabeziari aurre egiteko aitzakiaz, orain, aurreko krisietan bezala, ugazaberia, Gobernuak, CCOO eta UGT lan erreforma berri bat eztabaidatzen ari dira.

Esk-K ERREFORMA HAU GAITZESTEN DU bere helburua ez delako langabeziaren aurka egitea. Aitzitik, enpresa-sektorea lagundu nahi du langileen kaltetan.

Lan erreforma honi ezetza ematen diogu honakoak arrazoiengatik:

- **Iraiztearen merkatzea ematen da**, mugarik gabeko kontratazioaren sustapena erabilera sarituz, honen kalte-ordaina ohiko mugarik gabeko kontratuarena baino txikiago delako.
- **Ugazaberia diruz laguntzen du, ugazaberiaren funtzio soziala den lanpostuak sortzeagatik.** Lotsagarria da diru-kutxa publikoetatik urtero 3.000 milioi eurotik gora ateratzea ugazaben poltsikoetarako, jendea kontrata.
- **Irabaziak ateratzeko helburua duten enplegu agentzia pribatuen legeztatzea eta Aldi Baterako Laneko Enpresen jarduera hedatzea.**
- **Kontratazio-iruzurra onartzen jarraitzen da eta ez du amaitzen behin-behinekotasun indizeekin.** Kontratuak hobetzeko neurriak eskasak diren bitartean, behin-behinekotasun indizeen ziorik nagusienerako kontratazio-iruzurrarekin amaitzeko proposatzen diren neurriak ez dira ematen.



Iruña San Lorenz

12:00

Tutera Foru Pla

13:00

Bilbo Gran Vía - Toledo kafetegi

11:30

Martxa Errenteria-Donostia Alamed

10:00